

# **“BALI HOTEL HANDIA” XAKEKO NAZIOARTEKO XVI. JAIALDIA**

**(2017ko azaroaren 30etik abenduaren 10era, Valentzia  
Erkidegoko Alacant probintziako Benidorm hirian)**

**Eloko 2.000 baino gutxiagoko xakezaleentzako  
Nazioarteko XVI. Xake Torneo Handia  
(2017ko abenduaren 1etik 9ra)**

## **AZKENEKO SAILKAPENA, 10 TXANDA JOKATU ONDOREN.**

- 1) **Arturo Ramon Gualberto (Herrialde Katalanak) (1.960) – 8’5 puntu.**
- 2) **Odei Lerendegui Lasa (Nafarroa, Euskal Herria) (1.975) – 8’5 puntu.**
- 3) **Albert Borja Fraga Pons (Herrialde Katalanak) (1.952) – 8’5 puntu.**
- 4) Janis Daugerts (Letonia) (1.940) – 8 puntu.
- 5) Jose Ramon Estevez Jacome (Asturias) (1.937) – 8 puntu.
- 6) Arnau Clot Chico (Herrialde Katalanak) (1.905) – 8 puntu.
- 7) Gaspar Esquerdo Nogueroles (Herrialde Katalanak) (1.933) – 8 puntu.

Orotara, 384 jokalaria.

## **ELOAN, ODEI LERENDEGUIREN JAUZI HANDIA, BENIDORMEN.**



Odei Lerendegui, pieza zuriak zuzentzen.

Odei Lerendegui Lasak 18 urte ditu, jaiotzez Iruñekoa da eta Burlatako Mikel Gurea taldean jokatzen du.

Oso torneo ona jokatu zuen. 16. postuan zegoen ranking-ean eta bigarren amaitu zuen, 95'60 puntu irabazita FIDE eloan.

Porrot bakarra torneoko garailearen aurka egin zuen, seigarren txandan. Berdinketa zortzigarren txandan izan zen, azkeneko sailkapeneko hirugarren sailkatuaren aurka. Gainontzeko zortzi partidak irabazi zituen.

18 urtez azpiko lehenengo jokalaria izan zen. Horri esker, 1.400 euro poltsikoratu zituen.

Aurretik, maiatzean, Kantabriako Pielagosen jokaturako Antonio Robinet Torneoan hirugarren geratu zen. Beraz, garai gozoan aurkitzen da Odei Lerendegui gaztea.

**2017-12-10.**

**Iturria:** “<https://info64.org/xvi-gran-torneo-internacional-aficionados-s-2000/standings>” webgunea eta “Diario de Navarra”.